



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2022ko azaroa – TXOSTEN LABURRA

---

**UEH IKERKETA  
PROIEKTUA**

**Udalerri  
Euskaldunetako  
Haurrak eta Euskara**

---

Eider Saragüeta (DREAM ikerketa taldea - EHU)

Beñat Garaio Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)

**Zuzendaria:** Eider Saragüeta (DREAM ikerketa taldea, EHU)

**Proiektuaren koordinatzailea eta txostenaren egilea:** Beñat Garaio  
(Soziolinguistika Klusterra)

**Garapen Taldea:**

Mariate Bizkarra (IkHezi ikerketa-taldea-EHU)

Iñaki Eizmendi (EBETE)

Garikoitz Goikoetxea (UEMA)

Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea)

Karmele Perez (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea)

**Sustatzaileak:**



**Babesleak:**



## 1 SARRERA

Azken urteetan eremu erdaldunenak euskalduntzen ari diren bitartean, udalerrri euskaldunetako euskararen ezagutza eta erabilera datuak mantendu egin dira (Soziolinguistika Klusterra, 2021a). Azken emaitza hau simple azalduta, udalerrri euskaldunenetan datu soziolinguistiko ezberdinek beherako bidea hartu dute eta, berriz, ezagutza-indizea apalagoa duten udalerrri euskaldunetan gorakoa. Herritarren eta eragileen artean, ordea, gaur egungo egoera kezkarekin ikusten da eta kezka nagusietako bat, hain zuzen ere, haurren euskara erabilera eta hizkuntzarekiko atxikimendua da. UEMAko udalerrietako euskara-erabileraren neurketek diote 2017tik 2021erako tartean haurren datuak bost puntuko gorakada izan duela, hau da, % 70,5etik % 75,7ra (Soziolinguistika Klusterra, 2021a). Hala ere, datu horietan sakondu eta haurren egoera nolakoa den aztertu nahi da, haurrak beraiek erdigunean jarri.

Dokumentu hau, hain zuzen ere, baldintza eta behar horiei erantzuteko gauzatutako "UEH ikerketa proiektua: Udalerrri euskaldunetako haurrak eta euskara" egitasmoaren txosten laburra da.

## 2 PROIEKTUAREN HELBURUAK

Hauexek dira ikerketa-egitasmo honen helburu nagusiak:

- Hurrek ustez adin gero eta goiztiarragoetan gaztelaniaz hitz egiteko faktoreak identifikatzea, errealitatea zuzenean euren bitartez ezagutzuz
- Faktore horietatik abiatuta, hizkuntza aldaketarako estrategiak proposatzea eta praktika onak eta indarguneak identifikatzea

Bestalde, bi zeharkako helburu ere jorratu dira ikerketa honetan. Alde batetik, UEMAko udalerrietako hizkuntza-ohituren irudi orokor kualitatiboa osatzea, eta bestalde, ikerketako parte-hartzaileen artean hausnarketa soziolinguistikoa bultzatzea (haurrengan bereziki).


## 3 METODOLOGIA

UEH ikerketa proiektuaren ezaugarri metodologiko nagusienak azalduko dira jarraian.

### 3.1 IKERKETAKO POPULAZIOA ETA LAGINA

UEMAko 28 udalerritan kokatutako 35 ikastetxetan egin da *Hizkuntzen erabileraren neurketa, 2020-2021* (Soziolinguistika Klusterra, 2021b). Ikastetxe horietan ikasleek jolaslekuan duten jardura linguistikoa behatu da, hau da, 9.238 elkarriketa eta horietan solaskide izan diren 35.064 pertsonen hizkuntzen erabilera. Grafiko honetan ageri dira eskola guztietako emaitzak, lurraldeka eta euskara erabilera handienetik baxuenera antolatuta.

**1. grafikoa: IKASTETXEETAKO HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UEMA, 2020-2021. Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021b.**



Datu hauek, bestalde, hainbat aldagaiaren arabera ere aztertu dira, hots, udalerrri bereko ikastetxeekin alderaketak eginez, udalerrriko euskara-gaitasunaren indizearekin datuak alderatuz, Hizkuntzen Kale Erabileraren neurketetako datuekin konparatuz, sexuaren arabera euskara erabilera eta ikasmaita barruko aldaketak aztertuz, etab.

Bada, 35 ikastetxeko zerrenda horretatik aukeratu dira "UEH ikerketa"-n aztertuko diren 7 eskolak. Horietatik bina eskola Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak izan dira, eta bakarra, berriz, Arabakoa (Aramaio da lurralde honetako UEMako udalerrri bakarra). Ikastetxeak aukeratzeko orduan baldintzak bi izan dira, hots, eskola horretan erabilera neurketa eginda izatea eta aztertutako herrien aniztasuna bermatzea.

Proiektuan parte-hartu duten haurrak LH 5. Mailakoak izan dira, lan honetarako adin egokia zela iritzita. Edonola ere, azterketa osatzeko eskola horietako irakasle, zuzendaritza-kide eta guraso eta herriko eragileekin talde eztabaidak egin dira. Guztira, 7 herrietako 139 haurrek eta 43 helduk hartu dute parte ikerketa honetan.

### 3.2 ERABILITAKO IKERKETA-TRESNA

Esan bezala, erabili den metodologia kualitatiboa izan da, ikerketaren helburua hizkuntza ohituren aldaketa sakonki aztertzea izan delako. Ikerketa honetan erabilitako ikerketa-tresnak jarraian deskribatu direnak izan dira, hurrenez hurren:

**1. Hizkuntza biografia eta hizkuntza erretratua.** Hizkuntza biografiaren bidez, egunekotasunean norbanakoak egon hizkuntzekin duen harreman eta hizkuntza hauen erabilera ezagutu daitezke (Nekvapil, 2003). Hizkuntza erretratuarekin, berriz, marrazten duenaren hizkuntza kontzientzia ezagutu daiteke, haurrentzako erakargarria izan daitekeen modu batean (Kusters eta De Meulder, 2019:1).

**2. Testuinguruaren ezagupena.** Tresna honen helburua umeek herrian egiten duten bizimodua ezagutzea izan da, betiere hizkuntza esparrutik begiratuta.

3. **Hizkuntza hautuak ezagutzeko: rol-jokoak eta konfrontazio saioa.** Bi teknika hauekin haurren entzute eta parte-hartze sozialerako prozesuak erdigunean jarri nahi izan dira, antzezlan eta hausnarketan bidez gai zehatz baten inguruan izandako bizipen eta usteak modu sakonean ezagutzea ahalbidetzeko (Castro, Ezquerria eta Argos, 2016:144).


4. **Eztabaida taldeak (helduekin).** Eztabaida taldeen helburua gai zehatz batzuen inguruan elkarrizketatuek edo parte-hartzaileek ezagutu edo uste dutena modu sakonean jasotzea da, baita beraien artean egon daitezkeen ikuspuntu ezberdinak identifikatzea ere (Amorrortu eta beste, 2009; McCarty, 2015).

Ikerketa induktiboa da hau, izan ere, haurren ekintzen analititik abiatzen da eta azterketa horretatik atera eta ikusiko da haurrek beraiek zer hizkuntza kontzientzia maila duten eta zenbat problematizatzen duten hizkuntza hautuen afera.

## 4 EMAITZAK

Aztertu diren 7 eskoletan jasotako material guztia kontuan hartuta, udalerrri hauetan euskararen bizi-indarrean eragiten duten 140 faktore edo adierazle baino gehiago identifikatu dira. Horietatik 30 eskola-mailan kokatzen dira, 30 herrietan, 50 Euskal Herriko fenomenoak dira, 8 orokorrak eta, bukatzeko, 27 faktorek ikus-entzunezkoekin daukate lotura. Beheko grafikoan, herri mailan kokatu ditugun faktoreak nola antolatzen diren irudikatu da, adibide bat jartzearen.

2. grafikoa: **HERRIETAKO FAKTOREEKIN OSATUTAKO MAPA KONTZEPTUALA.**  
*Iturria: egileek egina.*



Hizkuntza erretratuekin jarraituz, aztertu diren udalerrri euskaldunetako haurrek askotariko loturak dituzte euren inguruko hizkuntzekin. Kusters eta de Meulderrek ikusi bezala (2019), guk jasotako erretratuetan aberastasun, aniztasun eta originaltasun handia ikus dezakegu. Halaber, UEH ikerketaren parte izan diren haurrek kontzientzia eleaniztuna garatuta dutela esan genezake (ibid.). Eleaniztasun horren barruan, baina, euskara eta gaztelania dira hizkuntza nagusienak eta, eremu elebiduna izanik, haurrengan hizkuntza batek duen dominantzia marraztutako erretratuetan islatzen da, Lauk (2016) ikertu bezala.

Esan bezala, aztertutako 7 herri eta eskola-komunitateek ezaugarri ezberdinak zituzten. Hala ere, eta ikerketa proiektu honen helburua herrien arteko konparazioa eta sailkapena ez dela gogoraziz, herri hauen profil proposamen bat egin dugu, partekatzen dituzten faktoreei erreparatuz gero:

A: Haurrentzako arnaguneak

- Haurrek euskararen erabilera oso handia dute
- Euskararekiko lotura estua dute, etxeko hizkuntza edozein izanda ere
- Gurasoen eta herriko eragileen kezkek ekimenak abian jartzera bideratu dute

B: Udalerrri euskaldun estandarrak

- Haurren euskararen erabilera altua da, batik bat ikasgelan
- Euskara hutsean egiten duten familiak geroz eta gutxiago dira eskolan
- Euskararen erabilera behera egiten ari da herrian
- Herrian ez dago militantzia artikulaturik egoerari aurre egiteko

C: Udalerrri euskaldun erasanak

- Gaztelaniaren erabilera nagusi da nabarmen haurren artean, baita ikasgela barruan ere
- Euskara hutsean egiten duten familiak geroz eta gutxiago dira eskolan
- Euskararen erabilera behera egiten ari da herrian
- Herrian ez dago militantzia artikulaturik egoerari aurre egiteko

## 5 ONDORIOAK

Egindako azterketa guztietatik eta identifikatutako 140 faktore horietatik, 10 ondorio nagusi atera dira:

1. Euskara hizkuntza nagusia da ikasgelan, baina ikasgelatik kanpo bere erabilera gutxitu egiten da.
2. Eskolan gertatzen dena herrian gertatzen denaren isla da, baita helduen praktika linguistikoa ere.
3. Identifikatu diren faktore gehienak elkarren artean lotuta ageri dira eta haurren eskumen eta fokutik kanpo daude, batzuk UEMArenekin kanpo.
4. Herritarren eta, honenbestez, haurren profila aldatzen ari da: geroz eta gehiago dira etxeko hizkuntza euskara ez dutenak.
5. Gizartea eraldatzen ari da eta hizkuntza dinamika berriak agertu dira: udalerrri euskaldunetako haurrek mundura begirako bizitza-ikuspegia dute.
6. Herriko eragileen artean elkarlanik ez dagoenean, hiztun komunitatea banatuta dago eta honek euskararen erabilera eta atxikimenduan eragiten du.
7. Ez dago nahikoa baliabiderik euskararen erabilera bultzatu eta herrietako euskalgintza berraktibatzekeo
8. Eskualdeetako inertziek eta ezaugarriek eragin handia dute udalerrri euskaldunetako hizkuntza ohituretan
9. Jasotako erantzun eta hautemate asko ezkorrak diren arren, datuek ez dute euskararen egoeraren atzerakada dagoenik esaten.
10. Haurrak jakitun dira euskararen egoera zein den, eragiten duten faktoreak identifikatzen dituzte eta euren ikuspegia helduena baino baikorragoa da.
- 11.

## 6 ETORKIZUNERA BEGIRA

Jarraian, ikerketa honetan ikusitakoarekin nondik nora jo daitekeen proposatuko dugu, horretarako bi bide erakutsiz: alde batetik, esku hartzeetarako jarraitu daitezkeen lan-ildoan eta, bestetik, identifikatu diren praktika on, indargune eta etorkizunerako aukerak.

### 6.1 ESKU HARTZERAKO LAN-ILDOAK

#### - Eskola

- Ikasle profil berriak integratu beharra dago, atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzeari arreta berezia eskainiz
- Eskola "arnasguneko arnasgunea" izan behar da
- Ahozkotasuna eta euskararekiko atxikimendua erdigunean dituen ikuspegia eta metodologia garatu behar da

### - **Herria**

- Eskualdeetako dinamikak ulertu eta bi norabideetan eragin behar da
  - Udalerrri euskaldunenak babestu, bizimodua bertan egitea hobetsiz
  - Eskualdeburuak euskaldundu edo, gutxienez, euskara erabiltzeko eremuak bermatu
- Helduak hizkuntza-eredu egokiak izan behar dira
- Herrietako ikastetxe eta eragileen arteko harremana ona eta lankidetzara bideratua izan behar da, kohesioaren mesedetan
- Haurren aisialdia erabat euskaraz izan dadin lortu beharreko baldintzak bete behar dira, hezitzaile euskaldunak trebatu eta kontratatzea funtsezkoa izanda

### - **Euskal Herria**

- Euskararen biziberritzearen aldeko babesa hauspotu behar da, horretarako giroa sortuz
- Atzerritar jatorrikoen integrazioa lehentasuna izan behar da
- Hizkuntza ohiturak euskalduntzeko dinamikak indartu behar dira, helduen artean batik bat
- Momentu oro euskara erabiltzeko erraztasunak sortu behar dira

### - **Orokorrak**

- Haurren errealitatera hurbildu behar da, ahotsa emanez eta ulertuz
- Guregan eragingo duten mundu mailako aldaketak ulertu eta aurre hartu behar zaie

### - **Ikus entzunezkoak**

- Haurren gustuak ezagutu eta euskarazko eskaintza egokia, aberatsa eta nahikoa eskaini behar zaie
- Euskarazko plataformak eduki erakargarriz hornitu eta sustatu behar dira

## **6.2 INDARGUNEAK, PRAKTIKA ONAK ETA AUKERAK**

Emaitzen eta ondorioen atalean, identifikatu diren faktoreen berri eman dugu. Irakurlea ohartuko zenez gero, azterketa ezberdinetan udalerrien egoeraren inguruko irakurketa nahiko ezkorra gailendu da, hainbat ikerketetan argitaratutako datuek besterik dioten arren. Hau honela, orain arte aipatu diren faktoreen artean aztertu diren udalerrietako indargune eta praktika onen zerrenda bat osatzeko eta zabaltzeko moduan ere bagaude.

### - **Eskola**

- Euskararen erabilerari garrantzia handia ematen zaio
- Hainbat eskolek ekimenak jarri dituzte abian euskararen erabilera bultzatzeko, batzuetan komunitatearekin elkarlanean



- Kezkak kezka, aztertutako udalerrietan euskara ikasgelako hizkuntza nagusia da, eta neurri handi batean baita eskolatik kanpoko euren arteko harremanetan
  - Irakasleek poza adierazten dute eskola hauetan lanean hastean, udalerrri euskaldun hauetan ikasleen euskara euren kabuz erabiltzen dutelako
  - Atzerritar jatorriko ikasleen hizkuntza-harrerari garrantzia handia ematen zaio, kohesio, integrazio eta elkarbizitzaren ikuspegitik
  - Etxean mintzo diren hizkuntzak euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzak direnean, kontuan hartu, nortasun anitz baten barruan txertatu eta harrotasuna ematen zaiela jaso dugu hainbatetan
- **Herria**
- Herri txiki batean hazteak hizkuntza ohiturak zaintzeko aukera eman die, euskararen mesedetan
  - Herri batzuetako eragileen artean koordinazio eta elkarlana dago euskara bultzatzeko
  - Herriko euskalkiak garrantzia du euren nortasunerako eta euskara batua baliagarria zaie behar dutenean
  - Hurrek hizkuntzari eusteko gaitasuna dute inguruko helduek gaztelaniaz egiten dutenean
- **Euskal Herria**
- Etorrin jatorriko herritar batzuk erraz hurbiltzen dira euskarara eta denbora-tarte txikian ikasten dute euskara
  - Euskaraz bizi diren familia eta kuadrilla ugari daude
  - Guraso batzuek, erdaldunak askotan, esfortzu handia egiten dute euskara ahal duten moduan bultzatzeko
  - Udalerrri euskaldunetatik kanpora joatean, gune erdaldunetako euskaldunekin euskaraz egitea ahalbidetzen du "euskaldun herri batekoa" izatearen etiketak
  - Euskaraz nabarmen hobeto moldatzen diren haurrak ere badaude gaur egun, hizkuntzaren bizi-indarraren erakusle bezala
  - Belaunaldi zaharragoek euren bizitzako momentu batean euskaratik gaztelaniarako eta berriro euskarako itzulera bidea egin dute, belaunaldi berriek itzulerako bide bera egin dezaten oinarriak eta aldeko baldintzak jartzea posiblea da
  - Helduen diskurtsoa eta praktikaren arteko aldea murriztuz haurren ohiturak indartzen dira, euskararen mesedetan
- **Ikus entzunezkoak**
- Ikus entzunezkoak euskaraz eskaintzeko beharra lehentasunezkoztat jo da gizarte eta erakunde mailan

- Hurrek erakutsi dute, horretarako aukera egoki eta erakargarria dutenean, euskarazko eskaintza kontsumitzen dutela
- **Aztergaiari dagokionez**
  - Udalerrri euskaldunetako egoera soziolinguistikoak garrantzia handia hartu du eta lehentasunezko esparru gisa ikusten da
  - Identifikatu diren faktoreek eta udalerrrien profil-proposamenek udalerrri hauetan esku-hartzea modu zehatzagoan egitea ahalbidetuko dute
  - Jasotako 140 faktoreetatik asko ezkorrak dira, baina azkenengo datu soziolinguistikoek erakusten dute euskararen egoera egonkor dagoela eta hobekuntza txikiak gertatzen ari direla garai zail hauetan
  - Haurren erabilera datuak hobetzen ari dira udalerrri euskaldunetan ere, eta elkarrizketatutako hurrek etorkizunera begira egindako irakurketa nahiko baikorra da

## BIBLIOGRAFIA

Amorrortu, Esti; Ortega, Ane; Idiazabal, Itziar eta Barreña, Andoni. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

Castro, Ana, Ezquerria, Patricia eta Argos, Javier (2016). "Procesos de escucha y participación de los niños en el marco de la educación infantil: Una revisión de la investigación". *Educación XX1*, 19(2) zenbakia, 105-126 or., doi: 10.5944/educXX1.14271

Kusters, Annelies eta De Meulder, Maartjes (2019). "Language Portraits: Investigating Embodied Multilingual and Multimodal Repertoires", *Forum: Qualitative Social Research*, 20(3) zenbakia, 10. artikulua.

Lau, Sunny M.C. (2016) "Language, Identity, and Emotionality: Exploring the Potential of Language Portraits in Preparing Teachers for Diverse Learners", *The New Educator*, 12:2, 147-170, DOI: 10.1080/1547688X.2015.1062583

McCarty, T. L. (2015). "Ethnography in language planning and policy research", in Hult, Francis M eta Johnson, David C. (edk.) *Research methods in language policy and planning: a practical guide*, 81-93. Oxford: Erresuma Batua.

Nekvapil, Jiri (2003). *Language biographies and the analysis of language situations: On the life of the German community in the Czech Republic*, Amsterdam: De Gruyter Mouton.

Soziolinguistika Klusterra (2021a). *HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA UEMako udalerrriak eta Tolosaldea, 2021*. Helbidea: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerrriak-eta-tolosaldea-2021/> [Azken kontsulta: 2022/11/16]

Soziolinguistika Klusterra (2021b). *HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETAK IKASTETXEETAN. UEMako udalerriak, 2020-2021.*